

# Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko ekainaren 18a IV.urtea

Usurbil, 69. Zenbakia



**Sanjuanekin hasten  
da jaien laisterketa**

## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Edurne!** Ekainaren 25ean zure urtebetetze eguna da, baina ez dugu esango zenbat ospatzen dituzun. Hala ere badakizu parranda ederra egin behar dugula. Zure lagunen partez.



Zorionak **Oihana Irazusta!** Ezin dugu ahaztu ekainaren 23an 15 urte betetzen dituzula. Egun on bat pasa, eta orain arte bezain umoretsu jarraitu dezazula. Muxu handi bat. Etxekoak.



Ekainaren 23an zure urtebetetze eguna izango denez, urteaskoan eta zorionak **Jontxu!** Ongi pasa eguna. Maddi, Peru eta Belen.



Zorionak **Ander!** Ekainaren 2an sei urte bete zenituen. Ondo pasako zenuelakoan gaude. Urteaskoan eta muxu handi bat guraso eta arreba Mirenen partez.



Zorionak **Olaia Elizalde!** Ekainaren 20an 6 urte beteko dituzu. Muxu pila bat eta egun on bat pasa. Zure anaia Borja, gurasoak eta Irati eta Endika zure lagunen partez.



Zorionak amona **Inaxi!** 87 urte beteko dituzu ekainaren 27an. Harro gaude zu bezalako emakumea, ama edo amonatzat izateaz, hain ederra, hain goxoa, hain indartsu eta borrokalaria... Asko maite zaitugu. Muxu eta besarkada handi bat. Familia.



Zorionak **Leire!** Ekainaren 7an urte bat bete zenuen. Muxu asko ama, aita eta Aritzen partetik

**Norbait zoriondu nahi baduzu hemen duzu aukera. Lortu argazkiak eta ekarri jarri nahi duzun testuarekin.**

**Hurrengo alea: ekainaren 18an  
Agurrak ekartzeko epea: ekainaren 11**

## Jaiotzak

**Leire Martinez Castuera**  
(1999-05-23)  
Olarriondo

**Olatz Aranzazistroki Kaperotxipi**  
(1999-05-29)  
Kalezar

**Mattin Zinkunegi Ugartemendia**  
(1999-05-31)  
Olarriondo

**Maria Aranzabe Zugasti**  
(1999-06-02)  
Kaleberri

## Hildakoak



1999-06-11  
**Carlos Carmelo Oses**  
45 urte  
Zubieta

**B**ai, esan?

- Udala 37 19 51
- Taxi geltokia 36 21 78
- Udaltzaingoa 36 11 12
- D.Y.A. 46 46 22
- Anbulategia 36 20 13
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Gure Pakea 37 32 28
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Gure Elkarteak 37 17 51
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Arrate egoitza 36 63 40
- Zumarte 37 15 94
- Eusko Tren 47 09 76
- Etumeta 37 20 01
- **Noaua!** aldizkaria 36 03 21

## EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO TREN ORDUTEGIA

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20 *	06.08	06.24	06.38 *
06.17	06.33	06.50 *	06.38	06.54	07.08 *
06.47	07.03	07.20 *	07.08	07.24	07.38 *
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.08 *
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.38
08.17	08.33	08.50 *	08.39	08.25	08.38 *
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.58
09.50	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.41
12.47	13.03	13.20	12.42	12.57	13.11 *
13.17	13.33	13.50 *	13.08	13.24	13.38
13.47	14.03	14.20	13.38	13.54	14.08
14.17	14.33	14.50 *	14.08	14.24	14.38
14.47	15.03	15.20	14.38	14.54	15.08 *
15.17	15.33	15.50 *	15.08	15.24	15.38
15.47	16.03	16.20	15.38	15.54	16.08 *
16.17	16.33	16.50 *	16.08	16.24	16.38
16.47	17.03	17.20	16.39	16.55	17.08 *
17.17	17.33	17.50 *	17.08	17.24	17.38
17.47	18.03	18.20	17.38	17.54	18.08 *
18.17	18.33	18.50 *	18.08	18.24	18.38
18.47	19.03	19.20	18.38	18.54	19.08 *
19.17	19.33	19.50 *	19.08	19.24	19.38
19.47	20.03	20.20	19.38	19.54	20.08 *
20.47	21.03	21.20	20.08	20.24	20.38
21.47	22.03	22.20	20.42	20.57	21.11 *
			21.08	21.24	21.37 **
			21.38	21.54	22.08
			22.38	22.54	23.08

\* Asteleheneretik ostiralera lanegunetan  
\*\* Larunbat, igande eta jaiegunetan

# Zer irizten?



## Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com  
Web orria:  
http://www.jalgi.com/topagunea/noaua/

## Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

## Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

## Publizitatea

Saioa Erro

## Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel Begiristain, Jone Aliri, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Azpiroz eta Arantxa Irazustabarrena.

## Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino.

## Eredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta eta Inaxio Usarralde.

## Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertzxe Gonzalez.

## Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez

## Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

## Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

## Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteke jendaurreko ordutegia: 16.30-18.30 astegunetan

## Azala:

Kalezarren San Juan gauean erreko dutena



## Xomorro zigorturik

Ixabel Bereziartua

**1** 999ko apirilaren 23az geroztik, espainiar eta frantziar espetxeetan ematen den sakabanaketaz gain, espetxe barruan sakanaketa, isolamendua eta murriztapenak ere jasan behar izaten dituzte Herrera de la Mancha espetxean. Ondorioz, erietxean, "ingresos" delakotan, "destinos" en, isolamenduko moduloan eta modulo arruntetan zehar barreiatu dituzte.

**Xabier Aranburu**, "Xomorro", 4. modulora trasladatu zuten **Iñaki Alonso** eta **Xabier Balerdirekin** batera. Geroztik, araketak egunero jasaten dituzte, arropa murriztuta dute, bi irakurgai eduki ditzakete soilik, aktibitateak debekatu dizkiete, aterperik gabeko 10 metroko patio batera ateratzen dituzte binaka, txixa egiteko plastikozko botila eraman beharra dute komun moduan erabiltzeko,...

**Xabier Aranburu**, eta bere kideek beste moduloetan dauden presoekin komunikazio guztia galdu dute. Denbora luzean eraman duten intsumisio eta elkartasun dinamika (pankartak, pintadak, kartelak, petoak, planteak,...) izan da dozenaka parte (zigorrak) jasateko arazoia. Kanean gero eta onartuagoa

dagoen "Presoak Euskal Herrira" erreibindikazioa espetxe barruan oraindik zigorrak eta zigorrak jasateko aitzakia da. **Xabier Aranburu** ere lehenengo graduan eta lehenengo fasean jarri dute, espetxe baldintzarik gogorrenak ezarritik. Hasteko, ekainean hasita 21 eguneko isolamendu zigorra bete behar du eta gainera aurrez-aurreko komunikazio berezi guztiak galtzeko arriskua du. Epaileari errekurritu arren, honek espetxeko zuzendaritzari arazoia eman dio, preso isolaturik dagoen bitartean ezin duela komunikazio berezietara ateratu argudiatuz, nahiz eta bisitaldi arruntetara ateratzeko arazorik ez egon.

Herrerako presoek halere, euren erreibindikazioen barruan, **Andueza** eta **Miner** presoekiko elkartasuna adierazi dute 92. artikulua bete dadin eskatuz eta orokorrean gaixo dauden presoek ukatzen zaizkien osasun baldintza egoiak eskatuz burutu dute hainbat salaketa.

"Xomorro" berak ia 8 urte daramatza espetxe barruan bizkarreko arazoekin eta gaur egun oraindik ez du lortu erresonantzia magnetikorik egin diezaioten diagnostiko zehatz bat izateko.



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herrira!



## Zubietako Herri Batzarraren kexa

Ekainaren 13ko hauteskundeak bazetozela eta, telefonoz jakinarazi genion *Noaia!ko* kazetari bati Zubietako Herri-Batzarra ere berritzekoa zela egun horretan bertan. Izandako elkarriketan, Zubietako hauteskondeei *Noaia!n* tokia egiteko nahia azaldu genuen, eta eman beharreko tratamenduaz ere hizketan aritu ginen.

Hala ere, 68.aleko hauteskundeen gehigarrian ez dugu Zubietakoei buruzko inongo aipamenik ikusi. Ez dakigu zein den horren zergatia, baina jakizue ez zai-gula batere egokia iruditu Noaia!k inolako tarterik ez eskaintzea. Zubietako Herri

Batzarrak, gogoan izan, sinatua du *Noaia!rekin* hitzarmena, eta gaur egun elkarlanean ari gara proiektu batean.

Lanaren estuasunak eragindako hutsegitea izango zelakoan, eta etorkizunean akats hauek zuzenduko ditugulakoan, jaso gure agurra.

**Xabier Arregi.**  
Zubietako alkatea

## 68. aleko okerrak zuzenduz

Ekainaren 4ko alean zenbait hankasartze egin genituen izenekin. Alde batetik kalejiran sailean **Jone Eizmendik** egin zuen Atxegaldeko kronika, eta ez **Jone Azpirozek**.

Bestalde, lehiaketako galderaren erantzunak emate-rakoan ere izen-abizenak ez ziren behar bezala agertu.

**Joxe Ramon Ibarguren** azaltzen zen han, baina horren orde **Joxe Ramon Ibargoien** agertu behar zuen. Bestalde, argazkian agertzen zen dantzarietako bat **Jexux Mari Olasagasti** zen eta ez **Jexux Mari Orbegozo**.

**Noaia!ko erredakzio kontseilua**

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezinez sinatu daitezkeen arrez *Noaia!k* beti jakin behar du norik idatzi duen. Gutunak *Noaia!ra* bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere inguru-koak.

**J**xirrikitutik



Uda iritsi da, baina kontuz jantzi sandaliak, sugeak ere paseatzera atera dira eta!

Zumartegi industrialdean agertu zen hau eta norbaiten makilkada jaso ere bai!

**ORBELDI**

MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

**ESTRELLA**  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Zubiaurrena, 10  
Tlf. 943 37 18 07 - Fax: 943 37 63 41

**GALARRAGA  
GARRAIOAK**

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

Telf.: 943 37 01 46

**ALBOR TA**

HARATEGIA

Behoko kalea, 4  
Atxegalde

Tlf. 943 36 57 42

## Etxebizitzen zozketa asteazkeneko merkatuan

**B**abes ofizialeko etxeak, zorionekoak zuek eta zuen jabe berriak. Pasa den ekainaren 2an udaleko pleno aretoan egin zen 31 etxebizitzen zozketa. Ezkontza zirudien, 255 ezkongai 31 etxebizitzen atzetik. Hori bai, jende ugari bildu bazen ere merienetik ez zen izan. Arraroa ezta? Jendea ez al da ba pintxoak daudenean bakarrik joaten horrelako topaketetara?

Arratsaldeko 18.30etarako iragarrita zegoen ekainaren 2an Aginaga, Txaramunto eta Galtzaragaina aurreko babes ofizialeko etxebizitzen zozketa. Goizeko asteazkenetako merkatuan baino jende gehiagorekin topo egin nuen udal areto ingurura igo nintzenean. Ingurura bai, barrura sartu nahi zuenak nahikoa komeria izan zuen eta. Aulki denak beteta, jendea lurrean eserita, besteak zutik... zozketan tranparen bat egingo zutenaren beldur?

### Datorren urtean Artzabal atzean egingo dituzten babes ofizialeko 52 etxebizitza gehi-go zozketatuko dira

Agian etxebizitza hauetako bat tokatu eta hor ez egoteak aukera hori galtzea ekarriko lukeela usteko zuen jendeak... ez dakit.

Tira ba, hasi zen zozketa. Aginagakoak lehendabizi. Babes ofizialeko 18 etxebizitza jokoan. Bi alde zehaztuta, beste 16ak 16 aginagarraren artean banatu behar... A ze suertea, zozketarik egin beharrik ez.

Iritsi da ordua. Horrenbeste urtetan babes ofizialeko etxebizitza edukitzeko aukerarik

gabe egon ondoren, 31 etxebizitza 255 pertsonen artean banatu behar. 255? Bai kopuru hori ikus zitekeen aretoaren kanpo aldean zegoen zerrenda luzean. Zenbakia izena, zenbakia izena... gure etorkizuneko etxea zenbaki batzuen esku, hau da marka hau...

Hasi da zozketa. Notarioaren zorioneko eskuari begira daude aretoan ezin kabituan dauden usurbildarrak. Paper bakoitzak zenbaki bat du, zenbakiak berriz izen bat. Alkateak euskaraz esaten du zenbakia, idazkariak erdaraz lehendabizi eta zorionekoaren izena ondoren. Zurrumurruak, ez da entzuten, edo hobe esanda, ez dugu entzun nahi. Zenbakia gora, zenbakia behera, zerrendan begiratzen batzuk, berea noiz esango besteak. Honelaxe joan zen hainbeste denboran zain egondako Txaramunto eta Galtzaragaina aurreko babes ofizialeko etxebizitzen zozketa. Batzuk gustora, gehiengo ez ordea... zer egingo diogu ba.

Itxaron egin behar. Berandu baino lehen beste honelako "espektakulu" berezi bat ikusteko aukera izango dugu. Artzabal eta Eguzkitzaldea artean 175 etxebizitza egitera doaz eta hautetatik 52 babes ofizialekoak izango dira. Datorren urtean udal aretoa baino leku haundiagoa aukeratu behar. Eta zozketa bingo moduko batekin egingo balitz zer?

Josu Aranberri



**TABERNA**

**"GYRE PRESOKAK**

**HERRIAN BEHAR DITVGV"**

Iraza kalea.12  
Tlf: 943 36 02 17

# GALARRAGA GARRAIOAK

- \* LUR ONGARRIAK
- \* ZABOR BILKETA
- \* ZISTERNA BEREZIAK

Telf.: 943 37 01 46



# TXOKOALDE

Imanol Goenaga



## Malagako Kleavaje Akerra gaztetxean

**A**urreko maiatzak 26an, EHko **Jose Antonio Altuna** eta **Xabier Orbegozo** izan genituen Akerra gaztetxean. Bere programa azaldu ziguten, herriarentzat dituzten proiektu berriak eta bestelako gorabeherak. Baina nagusiki gure auzoaren inguruko proiektu eta asmoez hitz egin ziguten.

Hitz egindako gaien artean Txokoaldeko etxebizitza berrien asuntua izan zen interes gehien piztu zuena. Ordu eta erdiko solasaldia izan genuen, Tamainakua!


Bestalde, zubiko kurban, bide ertzearen konponketa lanak hasi dira. Izan ere, bidea asfal-

tatu zuten garaian ez baitzuten bide ertza asfaltatu. Ikusi behar-ko zer moduz geratzen den, azkenaldian susto ugari izan baitira kurba horretan.

Sustoak eta gai serioak alde batera utzita, gure auzoan dibertitzeko parada ere baduzuela esan gabe ez naiz joango. Beti obra eta antzekoez aritzen bagara ere, Txokoalden badugu bestelakorik.

Ekainaren 19an Akerra gaztetxean

kontzertua izango dugu. Bertan, Malagatik etorritako **Kleavaje** taldea eta besteren bat izango ditugu. Gonbidatuta zaudete, ordurarte ADIO!



# KALEBERRI

Jokin Zubiaur



## Kaleberritik Kalezaharrerako gogoeta

**L**ehengo batean edadetu batek zera adierazi zidan, adierazi bai, begiekin bukatzen baitzituen esaldiak. Bere espresioak nostalgia salatzen zuen.

Auto-Eskola aurreko harritxoan zegoen eserita, eta agureen



legez "*batallitak*" kontatzen hasi ez zitzaidan ba! Oraintxe errepidea eta etxeak dauden tokian, aranerrek harrapatutako amurrainez ari zen; nola ez, bereak izaten omen ziren haundienak. Gero, irribarrea garraz-

ten joan zitzaion, esnatzen hasita, han errekarik ez zela konturatzean.

*"Orain dela bospasei urte, platano sendo haien geriza aprobetxa geneza-keen"* - zioen; berdetasun izpirik ez orain.

Egia da, orain konturatzen naiz, mutur

aurrean eraikitzen dutenean, eta paisaia lasaigarria desagertzean sentitzen dena. Orain, uler dezaket Eibar-Gasteiz errepidearen aurka botatako arrazoitakoren bat.

Baina dena onartu behar da: nere leiho aurreko etxeak itxuroso daude; gainera, kaxkoa eta kalezar gerturatuko dituenaren arrastoak agerian dira.

Dena dela, pena pixka bat ematen dit lurra horrela lantzeak... Ez?... Galdeiozue orduan amurrainek harrapatu izan dituenari!

P.D: Ostape atzeko zuhaitzak botatzen ari dira. A ze burrun-da!!

# ATXEGALDE

## Ikasi nahian

**E**ta berriz azterketa sasoi. Eta berriz liburu aurean eserita "kieto". A ze lanak begiak apunteetan mantentzen! Bapatean Gozategiren doinuak somatu ditut Udarregiko plaza aldetik, bal-koira gerturatu eta plaza jendez gainezka. Hara! Gaur ikastolaren eguna da eta!

Guk ere momentu ederrak pasa izan ditugu egun honetan! Guztiak hiru taldetan banatzen gintuzten, gorri, berde eta urdin eta joku ezberdinak antolatzen ziren goiz guztian zehar.

Hantxe joaten ginen goizean goiz gustora gustora gure kolo-

reko zinta jertsean katekorra-tzez lotuta. Egun hartan kolore-ek definitzen zuten zure lagun taldea. Ez ziren haserrealdi makalak sortzen!

Guztiok tinko defendatzen genituen gure koloreak, hil ala bizikoa balitz bezala. Gorri zena urdinarekin haserretu eta hurrengo egunean ere haserre jarraitzen zuten, nahiz eta haserrearen arrazoia gogoratu ez.

Gogoeta honetan murgilduta nengoela konturatu naiz ikastolaren egunak bazituela bere alde txarrak ere. Ondo pasatzeko antolatua zen arren, beti sortzen ziren liskarrak gure arte-

Amagoia Mujika



an; batek tranpa egin zuela edota besteak ez zuela ondo egin, beti komeriak!

Berezkoa ote du gizakiak iza-era konpetitibo hau edo beti onenak izateko hezitu gaituzte?

Galdera zaila azterketa sasoiaren pentsatzen jartzeko. Beno, ahal bezala bueltatu naiz liburu artera eta konturaterako igandea pasa da.

Astelehena, gaur bai. Lema honekin abiatu naiz berriz liburu arteko mundu "zoragarrira" eta konturaterako "tarero-tarero" doinuek hartu dute auzoa. Atxegalden ezin al da ikasi?

# KALEZAR

## San Juan!!!

**S**an Juanak iritsi direla azkenean, jende askorentzat egun esanguratsuak izango dira: Kalezarko festak batzuentzat, inguruko herrietako jai zerrendaren hasierako txupinazioa beste batzuentzat eta urtaro berri baten hasiera gehientzat.

Baina San Juan eguna baino lehenago, San Juan bezpera izaten da eta egun horretan ohitura zahar bati jarraipena ematen diogu: etxez etxe hor joaten gara San Juan eskeko koplak zaharrek eta berriak kantatuz. Iluntzean, ondo afaldu ondoren, San Juan suari su ematen diogu, urte zaharra erre eta berriari ongi etorria

emango bagenio bezala. Ondoren eskean jarraitzen dugu ordu txikiak arte.

Girotu zaitezten gonbite bat luzatzen dizuet hemendikantxe. Jon Maia eta Andoni Egañak, 1993ko San Jaun eskean botatako koplak. **Bat,bi ta hiru SAN JUAN!!!**

*"Dios te salve" ongi etorri gabon jainkuak direla legiarekin kunpli dezagun aita San Juanen bezpera*

*Arbasozarrek bezela ospa nahi dugu San Juan bezpera gure ohiturak eta premiak bultzatzen gaitu eskera "Dios te salve"...*

Joseba Pellejero



*Garai batean gure etxetan biltzen ziren sutondoan gu ere hemen bildu gaitezen famili baten moduan*

*"Dios te salve"...*

*Suaren bueltan dantzan ta jiran*

*denak hasi gaitzela garai bateko akelarretan aritzen ziren bezela*

*"Dios te salve"...*

*Eskerrik asko eta adio aholku bat Usurbili suaren bueltan egon zarete ohean ojo ibili*




# SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



## Udara ate joka datorkigu

**U**dara ate joka datorkigun honetan, nork ez du askotan Usurbil hondartza batekin irudikatu? Nork ez du horrelako zerbait desio? Herrian entzun izan da maiz Usurbilek hondartzik baduela; Oria ibaiko bazterrak leku ezin hobekak direla.



Duela hamabost bat urte, Oria ondoko industrialderik ez zegoenean, horrelako aukerez gozatzeko aukera paregabea eskeintzen zuen Oria ibaiak. Kutsadura eza eta uraren garrantasuna nagusi zen orduan. Hau aprobe txatuz, herriko hain-

bat gazte, eta Santueneakoak batipat, hantxe joaten ziren toailak hartuta bainu bat hartzera. Nere ahizpek askotan kontatu izan didate halakorik. Tren geltoki ondoan isla txiki bat bezala zegoen, hondartza moduko

bat sortzen zelarik. Lehen ez zituzten egun ditugun hainbeste baliabide eta erreztasun hondartzara joateko. Hantxe zuten leku paregabea, udarako bero jasanezinak nolabait baretzeko parada ezin hobea. Izan ere, lehen gutxi behar izaten baitzuten arratsalde atseginak igarotzeko.

Amets soiletan geratuko den hau alde batera utzita, aipagarria da zenbat jende ibiltzen den Santuenea aldetik eguneko ibilalditxoak egiten. Emakume ugari ibiltzen da bazkal ostean, galtza motxak eta deportiboak jarri eta kilo batzuk botatzeko irrikiz.

# URDAIAGA

Eider Jauregi



## Zaborra

**B**adira hilabete batzuk udaberrian sartu ginela, udara ere gainean dugu, baina gure auzo honetan ez da aldaketa handirik nabarmentzen. Eguraldi ona egin duen eguntan mugimendua izan da, parkea jendez gainezka ikusten baitzen.

Bestalde ezkontzak ere ugari izaten dira urtaro honetan eta hauek ere beraien arrastoak uzten dituzte: globo lehertuak, poteak...

Baina ez dira hauek gure auzoa zikin uzten duten bazarak. Lehen aipatu nuen bezala bide bazterrean botila, plastiko

eta antzekoak uzten zituztenak baziren, eta badira oraindik ere. Hauei ez zaie axola gure ingurunea txukun utzi edo zaintzea. Udaltzainek bide bazterreko eta parkeko zuhaitzetan dena txukun utz zezaten eskatzen zuen mezu bat jarri zuten, baina egun gutxiren ondoren mezu hauek desagertu egin dira.

Nik ez dakit, baina inguru guztia zakarrontziz bete beharko dugu zaborrak jango ez bagaitu.

Zaborrarekin jarraituz, zabotegian ere lan ugari egin dute. Azken aldirian izugarrizko garbiketa egin dutenez segi dezatela lan horretan eta ea beste hainbatek ere hauen ekintzei jaramon gehiago egiten dien.





iran

# AGINAGA

## Piperrak lursailetan

**D**agoeneko udarari begira jarri gara herriko mutur honetan. Dakizuenetz urtero uda partean gure auzoko herriberak eta gainerako lursail gehienak jendez gainezka egoten dira, denak makurtuta gainera, ondoan zakua hartu eta nork kilo gehien osatuko.



Azken bolara honetan piperra landatzen dutenak zerura begira ibili dira bai, eguraldiak noiz lagunduko soroak errenkada txukunetan betetzen hasteko.

Aurten, batzuk behintzat sekula baino arinago egin dituzte lanak. Izan ere **Agina**

**Piperrak Elkarteak** piperrak landatzeko makina bat ekarri du lehenengoz gure barazketara. Esan beharra dago hauek aldatzen dituzten kantitateak aldatzeko zerbaiten beharra ere bazegoela. Oraingo honetan, urrutirago joan gabe, **Sariko herribera** partean baka-

Izaro Aizpurua



rrik gutxi gora behera 80.000 landare sartu dituzte, atera kontuak zenbat izango diren lursail guztiak kontutan hartu ezkeru.

Bestalde Aurreko asteburuan festa giroa somatu genuen eliza inguruan. Lau gaztetxok, **Odile Ajuria, Imanol Esnaola, Gorka Elustondo eta Oihana Eizagirrek** beren lehenengo jaunartzea ospatu zuten pasa den igandean. Elizkizun polita izan zen hilaren seikoa, lauen ikuskizun musikalarekin eta guzti. Zorionak beraz gainerako herrikideek baino astebete gehiago itxaron behar izan baduzue ere!

# ZUBIETA

## Udarako egitasmoak

**Z**ubietta Herri ikastetxeko guraso elkarteak egitasmo ugari ditu udara eta hurrengo kurtsuari begira.

Alde batetik, Herri Eskolaren egoera larria ikusita, elkarte honek berrikuntza batzuk egiteko asmoa du, matrikulazioek gora egingo dutenaren itxaropenarekin. Eratu nahi diren zerbitzu horietan ordutegi zabala goa eta jangela zerbitzua sartuko lirateke. Horretarako eskutitz bat bidaliko zaie Zubietako haurren gurasoei egitasmo honen berri emanez. Hala ere, interesatuok ekainaren 25ean, ostirala, 18.30etan eskola txikian egingo den bilerara azal zaitezke.

Bestetik, Zubietan elkarrengandik hain urruti bizi diren haurrak elkartuko dituen udarako udaleku bat martxan jartzeko asmoa dute 2-8 urteko haurrentzat. Bertan jolasak, mendira irtenaldiak... etabar egiteko aukera izango dute goizeko zortzietatik eguerdiko ordubata bitartean. Guzti honi buruz ere lehenago aipatutako bileran hitz egingo da.

Azkenik, udararako hainbeste falta ez dela eta, proposamen berri bat jarri du mahai gainean

Olatz De Miguel



elkarte honek. Zubietako Santiago jaietarako tanborrada bat antolatu nahi dute adin guztietako jendearekin. Bertan atera nahi duzuenok uztailaren 2an 20.00etan egingo den lehen entsaiora azal zaitezke.





## Erdi eta Goi mailako zikloetan D ereduak bultzatuz

**I**rakaskuntza alorrean aldatuta garrantzitsuak eman dira azken urteetan. Usurbilen daukagun egoera ikusi besterik ez dago. Udarregi ikastolan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza jarri eta hurrengo urtean, ikasle faltan, Agerialde ikastetxea desagertu zen. Usurbilen euskararen aldeko apustua egin da. D ereduak nagusi da behe hezkuntzan eta DBHan, baina zer gertatzen da gero? Lanbide Heziketa eta batxiler mailan D ereduak ba al du jarraipenik?

Aurten aterako dira Udarregi ikastolatik DBHa burutu duten lehen ikasleak. Lehen 14 urterekin beste ikastetxe batetara joan beharra izaten bazen ere, 16 urte dituzte datorren urtean ikastolatik kanpo ikasiko duten horiek. Euskaldunak dira denak, D ereduaren ibiliak, eta beraz euskaraz egin dituzte orain arteko ikasketak.

Jarri dira ba etorkizunari begira. Datozen urteetan ikasketak non egingo dituzten erabaki behar izan dute. Baina izango al dute, orain arte bezala D ereduaren ikasteko aukerarik? Bai eta ez. Zenbait institutu eta Lanbide Eskolek D ereduaren aldeko apustua egin badute ere, egin beharreko bidea luzea da oraindik.

DBHa bukatu ondoren ikasten jarraitzeko bi aukera nagusi dituzte ikasleek. Alde batetik batxilergoa egongo litzateke eta beste aldetik Erdi Mailako Heziketa Zikloa lehendabizi eta Goi Mailako Heziketa Zikloa gero. Hala ere bat egiten hasi ondoren gero bestea egitera pasatzeko aukera badago.

Usurbil inguruan bi aukera hauek eskaintzen dituzten ikastetxeak baditugu: Lasarteko Batxiler Institutua eta



Zubietako Lanbide Eskola. Baina bi ikastetxe hauetan haurrez aipatutako ikasketak oso osorik euskaraz egin al daitezke? Horixe da D ereduaren aldeko kanpaina egiteko Usurbilen sortu den taldeak lortu nahi duena. Lehen hezkuntzako matrikulazioa ireki zenean D ereduaren aldeko kanpaina egin zuten, orain, batxilergo eta erdi eta goi zikloko ikasketetan D ereduaren jarraipen bat egin nahi izan dute.

---

### Lasarte Oriako batxiler institutuan D ereduaren A ereduaren baino gehiago aurtengo ikasturtean

---

Lasarte Oriako Batxiler Institutuan iazko matrikulazioaren arabera, D ereduaren ikasten jardun dutenak gehiago dira. 244 ikasle egon dira D ereduaren, baina horietatik 216k LOGSE egin dute.

Administrazioa eta finantzak, FP2ko administrazioan eta erdi zikloko ikasketetan ordea, 28 ikasle bakarrik burutu dituzte auskaraz bere ikasketak D ereduaren. A ereduaren berriz, 238 ikasle egon dira.

Hemendik bi urtera egoera bestelakoa izango delakoan daude. Bertan esan digutenez DBHan D ereduaren dabiltzanek gero eta gehiago dira, eta epe laburrera batxilergo ikasketak gehienak euskaraz egingo direlakoan daude.

Zubietako Lanbide Eskolan egoera ez da hain ona. 1998/99 ikasturtean 315 ikasle ikasi dute A erduan, euskaraz ikasi dutenak ordea, 138 bakarrik izan dira. Goi mailako erregulazio eta kontabilitatea, elektrizitatea eta erdi mailako Gestio Administrazioa ikasketak ezin dira euskaraz ikasi.

D ereduaren aldeko talde horretan dabilen Euskal Herrian Euskarazeko **Niko Bengoetxeak** esan digunez Usurbil bezalako herri euskaldun batean dagoen ikastetxe batean honelako egoera ikustea ez da normala. "Kontraesan bat ikusten dugu hor. Ez

## Lan munduan erdara nagusi denez ikasle askok, nahiz eta aurrez euskaraz ikasi erdaraz ikasten dute Lanbide Eskolan

Usurbil herri euskalduna delako bakarrik, behe mailako ikasketetan D eredu nagusitzen ari delako baizik. DBHan euskaraz ikasten bada, Zubietako Lanbide Eskolan nolatan horrelako diferentzia? Jendea ikasketak hauek euskaraz egitera animatu behar da. Ikasleak matrikulatzerakoan D eredu ikasteko eskaera badago euskaraz irakastera behartuak daude, gutxiengo kopurua eskatzen dute, 15-20 ikasle”.

Hala ere ikasketak hauek D eredu egitea eskatu aurretik ikastetxe bakoitzak bere eskaintza nola egiten duen kontutan hartu behar da. Lanbide Heziketako zenbait ikastetxe ikasketak hauek A eredu bakarrik ikasteko aukera ematen dute. D eredu alde batera uzteko euskarazko ikas material falta, euskaraz klaseak emateko zailtasunak dituzten irakasleak... honelako aitzakiak jartzen dituzte.

Euskarak lan munduan duen lekuko eskasa ere oztupo bihurtu da. Zenbait jende lan munduan erdara nagusitzen dela ikusita, Erdi eta Goi mailako ikasketak erdaraz egin nahi izaten dituzte, nahiz eta aurretik ikasketak guztiak euskaraz eginak izan. Hala ere, aukera hau egiten bada lan mundua ez da inoiz euskaldunduko. Nikoren esanetan “ikasleak D eredu ikastera animatu behar dira eta pixkanaka-pixkanaka lan mundua euskalduntzea ere lortu daiteke”.

Josu Aranberri

### Lasarte-Oriako Batxiler Institutua. 1998/99 ikasturtea

	A eredu	D eredu
1.LOGSE	46	109
2.LOGSE	74	107
A.G. ERDI ZIKLOAN 1. Kurtsoa.	29	
A.G. ERDI ZIKLOAN 2. Kurtsoa.	12	
F.P. II Administr. 3.kurtsoa.	28	12
Administr. eta finantzak 1.kurt.	29	
Administr. eta finantzak 1.kurt.	20	16

### Zubietako Lanbide Eskola. 1998/99 ikasturtea

	A eredu	D eredu
AUTOMATISMOAK. L.H. II	39	36
MEKANIKA L.H. II	31	19
GOI MAILA ERREGU. ETA KONTA.	20	
ELEKTRIZITATEA. Erdi maila	33	
MEKANIKA. Erdi maila	36	38
ADMINISTRATIBOA. L.H. II	28	12
ADMINISTRATIBOA. Goi maila	49	16
GESTIO ADMINISTRAT. Erdi maila	41	
BATXILERGO TEKNOLOGIKOA	16	17

## Erdara nagusi Lanbide Hastapenean

Udalak antolatutako Lanbide Hastapeneko ikastaroetan ere A eredu nagusitzen da. Ildepaindegi-edergintza, margotza-dekorazioa eta gozogintzako ikastaroak ez dira euskaraz ematen.

1998/99 ikasturtean, aurrez A eredu ikasitako ikasleak 20 ziren, eta D eredu ikasitakoak berriz, 9, hauek

bost usurbildarrak. Hala ere, aurtengo ikasturtean azken hauek euskaraz ikasteko aukerarik ez zaie eman.

Beraz, nonbaitetik hastekotan etxeko sukaldetik hastea ona izaten da. Usurbil UEMAn sartua dago, udalaren ere euskara nagusitzen da, baina gero, lanbide heziketan adibidez, erdaraz ematen dira klaseak.




## Eroskiko lanak gelditzea eskatu dute

**G**ipuzkoako merkataritza federazioak Eroski Asteasuainen eraikitzen ari den supermerkatuko lanak gelditzeko eskatu dio Euskadiko Epaitegi Gorenari. Hauen esanetan Foru Aldundiak eta Usurbilgo udalak irregulartasun administratiboak egin dituzte.

Bien bitartean Eroskiko supermerkatua eraikitzeko lanak aurrera doaz, eta geldituko direnik ere ez dirudi. Izan ere, abenduaren hasierarako lanak bukatuta egongo direla adierazi dute enpresako ordezkariak.

Beraz, nahiz eta merkataritza federazioak hori eskatu lanak geldi araztea ez da erraza izango. Federazio honek errekurtsio bat aurkeztu zuen pasa den martxoan Epaitegi Gorenaren aurrean. Bertan, Asteasuaingo lurren kalifikazio aldaketa egiterakoan irregu-



lartasunak izan zirela salatzen dute. Foru Aldundiak Usurbilgo udalari onespina eman zionean, kalifikazio aldaketaren kontra zegoen Eusko Jaurlaritzaren informe bat ez omen zuen kontutan hartu.

Errekurtsioa sartu badute ere lanak geldi araztea ia ezinezkotzat jo dute Merkataritza

### Federazioko ordezkariak.

**Jose Luis Erviti** idazkariak lanak gelditzeko zailtasunak haundiak direla adierazi digu.

"Hala ere, izan diren irregulartasun horiek onartzea da guk nahi duguna. Eroskiren proiektuak herriko komertzioan eta orohar gizarte osoan konpondu ezineko kalteak sortuko ditu".

## Aitzaberri etxea bota egingo dute

**U**surbilgo sarreran dagoen **Aitzaberri** etxea bota egingo dute laister. Etxe honen egoera txarra ikusi ondoren eta udalarena denez, botatzea erabaki zuten ekainaren 8ko plenoan. Botatze proiektua egina dago eta lan hau egiteko arduraria Acuña S.A. enpresari eman diote 326.000 pezetaren truke.



### Estadua errekurtsioa jarri du udalaren aurka

**E**uskadiko Epaitegi Gorenak Espainiako Estadua aurkeztutako errekurtsioarekin aurrera egitea erabaki du. Euskal presoek bizi duten egoera salatu eta Euskal Herrira ekar ditzaten eskatzeko Usurbil eta Oiartzungo udalek udal erabilerarako paperetan "Euskal Presoak Euskal Herrira" leloa jartzea erabaki zuten pasa den urtean. Orain, erabaki hauen kontrako errekurtsioa onartzea erabaki du Epaitegi Gorenak.

# N • U

## Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa, makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 21.A  
Telefonoa: 943 36 19

# MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen

modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06

Haur jantziak



# Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

# S 99 anjuanak

Noaia! Usurbil 69.zk.

1999ko ekainak 18



San Juan!  
nekez etorri  
erraz jua

# “San Juan bezpera, sarna fuera”

**S**anjuan jaiak eta kalezar lotuta daude aspalditik. Belaunaldiz belaunaldi Sanjuan bezperako sua eta eskea ezagutu dira Kalezarren, eta aurten ere ez da horrelakorik faltako. Sokorroko ermitara sartu eta han aurkituko duzu San Juan Bautista, hainbat aldiz San Juan egunean prozesioan kalera atera izan duten patroia.

San Juan bezperan hasi eta egunean bertan amaitzen den San Juan eskea ezaguna da Kalezarren. Baserriz baseri ibili izan dira, eta ibiltzen dira oraindik ere, Kalezarko gazteak koplakantari. San Jaun sua piztu eta eskera irtetzen ziren bertako gazteak. Hala ere, aitzinan “San Juan bezpera, sarna fuera” oihukatuz, urte osorako gaixotasun hura uxtzeko esperantzarekin suaren gainetik salto egiten zuten. Oraindik ere, baseri askotan sua pizten da San Juan bezperan.

Hala ere, garai batean zezenek beren tartea izaten zuten Kalezarko festetan. Zarautzen San Pelaiotan, Kalezarren eta Hernanin Sanjuanetan, Urdaigagan Sanestebanetan... inguruko herrietara joaten ziren usurbildarrak zezenen aurrean korri egitera. Azkuek behin usurbildar bat kantari honela entzun omen zuten:



Garai batean etxe honetatik zezenak irtetzen omen ziren plazara

*“Aurten Ernanin Sanjuanetan zezenak dira yokatu. Orain aurrera amairu bertso bear nituzke paratu: gizon batzuek dirala kausa neri zer zaidan gertatu”.*

*“Preso nintzala esan zidaten, enakian nik zer egin; esku bietatik eltzen zidaten Jaunak erori enendin; laster asko erakutsi zidaten kartzela non zen Ernanin”.*

1674an 94 urteko Sebastian de Berridik Kalezarren zezenak izaten zirela garbi utzi zuen. Honen esanetan berak zezenak ikusi zituen Kalezarren eta parte hartu ere bai. Garai hartan Kalezarko plazan izaten omen ziren. Sanjuanetan Kontzeju

zaharretik zezenak nola ateratzen ziren gaur egun ere bat baino gehiago gogoratuko da oraindik.

## Kalezarko plazatik abiatzen zen alardea

San juanetan ez baina Santio edo Santa Ana egunean alardea egiten zen Kalezarren. Kalezarko plazan biltzen ziren herri armak zituztenak arma erakusketa egiteko. Plazatik Ospitalera joaten ziren, egungo Sokorroko ermitara. Han konpania osatu eta Elizaldeko plazara jisten ziren. Meza entzun eta elizari kanpo aldetik buelta emanaz bukatzen zen alardea.

Josu Aranberri

**SAIOA**

**ILEAPAINDEGIA**

Solarium zerbitzua

**Ondo pasa sanjuanak!**

Kalezar ☎ 943 37 29 52

**Algarate**

**SARGARDOTEGIA**

**ERRETEGIA**

**Ondo pasa sanjuanak!**

Tif.: 36 26 73 - 36 12 03 USURBI

**KALEZARRA**  
karrozeria



**ONDO PASA SANJUAN FESTAK!!**

Ugaldea industrialdea.15  
USURBIL Tel. 943 37 26 09


# Gorritiren animaliekin urteroko zita

**B**era ere ez da gogoratzen zenbat aldiz etorri den bere animaliekin Sanjuanetan Kalezarrera, baina duela 20 urte hasi zenetik behin baino gehiagotan jolastu dute hemengo hurrek Gorritiren poney, basurde mestizo eta bigantxeekin. Aurten ere bere furgoneta eta animaliak hartu eta Kalezarren izango da ekainaren 19an.

Eguerdiko 12.00etan Gorritiren Showa. Zenbat aldiz irakurri ote dugu hau Sanjuanetako programan. Eta noski, aurten ere ez du huts egingo, animaliekin jolastu nahi duenak badu nora joana. Hala ere, kontuz! Animaliekin jolastea eta gaizki tratatzea gauza desberdinak dira Joxe Mari Gorritiberearentzat. *"Garrantzitsuena animalia ondo tratatzea da. Gaur egungo hurrek beldur haundia die animaliei, baina hauei animaliak maitatzen eta errespetatzen erakutsi behar zaie"*. Hau eta hurrek ondo pasatzea da Gorritiren ikuskizunaren helburua.

## Ehun aberetik gora ditu Gorritik bere baserrian

Horretarako animaliak hartu, furgonetan sartu eta herriz herri ibiltzen da Gorriti. Erabiltzen dituen animaliak bertakoak dira eta ehundaka abere ditu bere baserrian. Hala ere Kalezarrera horietatik gutxi batzuk ekarriko ditu: poneyak, oilarrak, basurde mestizoak eta bigantxak.



*Gorriti gustora ibiltzen da herriz-herri bere animaliekin. Kalezarren ere urteroko gonbidatua izan ohi da.*

Haurrak gustora ibiltzen dira Gorritiren erakustaldi honetan. Poney gainean bueltatxo batzuk eman ipurdiko eta guzti, Roldan, Mario Conde eta Ruiz Mateos izeneko oilarrak ukitu, basurde mestizoen atzetik korrika ibili eta bigantxen aurrean hauek ikutu gabe korrika egin, honelako gauzak ez dituzte egunero egiten gaur egungo hurrek.

## Hurrek zezen txikiak dituzte gustokoen

20 urte eta gero Gorritik ikusleentzako animaliarik gustokoenak zeintzuk diren badaki. *"Hurrek zezen txikiekin gozatzen dute gehien. Poneyak asko gustatzen zaizkie, baina zezenek beste urduritasun eta emozio bat sortarazten diete"*.

Horretarako abere gazteak bakarrik ekartzen ditu Gorritik bere ikuskizunetara, "abere helduekin jolastea arriskutsua baita".

Bere ametsa ikuskizunerako kanguru bat edo beste animalia bereziren bat lortzea bada ere, azken urteetako ikuskizun berdinarekin etorriko da Kalezarrera. Beno, aldaketaren bat edo beste izango dela aurreratu dezakegu *Noaua!n*. Izan ere aurten asto txiki bat aterako du. *"Hauxe izango da berrikuntza bakarra. Astoek fama txarra izaten dute, jendeak tontotzat hartzen ditu, baina niretzat oso onak eta leialak dira. Astoak zoragarriak dira"*. Beraz badakizue, animaliekin jolastu nahi baduzue Kalezarren dzue aukera.

## A. MANSO

aroztegia



**Jaiak ondo igaro kalezartar guztiok!**

Ugarte, 10 USURBIL  
Tlf. 37 05 73

## MANPEL, S.A.

**Banaketa:** bulegoko materiala, opariak eta arte grafikoak

Unipapel-en  
ORDEZKARITZA

EDIT 66 Ezkontzak,  
jaunartzeak, txartelak

**Ondo ospatu sanjuanak!**

Ugaldea Industrialdea, 19

Telf.: 943 36 58 92  
Faxa: 943 37 16 86

SERIGRAFIA  
TANPOGRAFIA  
**IOSU**  
Ugaldea poligonoa 36 - 2º. Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

INDUSTRI ETA  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA

# Sanjuanak 99

## Ekainak 18, ostirala

19.00etan Jaiei hasiera emango dien Txupinazoa.

Jarraian buruhaundiak

23.30etan:

Jexux Mari eta Nohizbehinka

Jarraian **ETZAKIT** taldearekin dantzaldia

## Ekainak 19, larunbata

Eguerdiko 12.00etan **"GORRITIREN SHOWA"**

Arratsaldeko 16.30etan **mus txapelketa** Peña Pagola elkartean.

Arratsaldeko 18.00etan **trikiti emanaldia**

Gaueko 22.30etan bertso saioa: **Andoni Egaña, Angel Mari Peñagarikano, Igor Elortza eta Jon Maia**. Gai jartzailea: **Bota Puntuba**.

Ondoren, **MOMAU** taldearekin kontzertua.

Segidan **IZOTZ** taldearekin dantzaldia eguna argitu arte.

## Ekainak 20 Haurren eguna

Arratsaldeko 17.30etan **antzerkia Udarregi ikastolako haurren eskutik**.

Bukatzean, **umeen jokuak**: Sagar jokoa, aulki jokoa...

Ondoren **buruhandiak**.

## Ekainak 23, asteazkena San Juan bezpera

Arratsaldeko 17.00-tan **San Juan eskearen irteera Bixente Gorostidi eta Nahikari Gabilondo** bertsolariekin.

Arratsaldeko 20.00etan San Juan eskeko **afaria**.

Gaueko 22.00etan **San Juan sua**.

Ondoren San Juan eskearen jarraipena.

## Ekainak 24, osteguna San Juan eguna

Goizeko 11.00tan **Meza nagusia**.

Eguerdiko 12.30tan **toka txapelketa**.

Arratsaldeko 17.00etan **herriko dantzariak**.

Ondoren **sardiña eta sagardo dastaketa** Saizar Sagardotegiaren eskutik eta hau animatzeko erromeria **"AIORA ETA EIDER"** trikitalariekin.

ALUMINIOZKO AROZTEGIA

ALUAL, S.L.



**Jaiak ondo pasa!**

Tel.: 943 37 05 06

Ugaldea 36, Faxa: 943 37 05 50

# Sanjuan jai onak pasa!!



LARRAÑAGA **LP**  
PLASTIKOAK

*Ondo pasa sanjuanak!*

Ugaldea, 1 Tlf.: 943 36 14 46  
USURBIL 37 33 05



Autoko giltza eta sarrailetan adituak

Autoen garbiketa osoko zerbitzua

Sanjuan jai onak pasa!

Ugaldea industrialdea, 5 lokala

Tel.: 943 36 60 88  
Faxa: 943 37 34 52

**MAY-KAR**  
*jatetxea*

Gosariak, hamaiketakoak,  
eguneko menuak,  
enpresa bazkariak,  
meriendak eta afariak

Asteburu eta jai bezperetan  
**DANTZALDIA**

Ugaldea, 14

943 36 69 68



## Babes ofizialeko 52 etxebizitza Artzabalen

**A**rtzabal baserriaren atzean etxebizitzak egitera doaz. Lanak hasi aurretik ordea, hitzarmen ugari egin behar izaten dira. Udalak pasaden ekainaren 8ko plenoan onartu zuen horietako bat. Artzabal 4 sektore hori garatu ahal izateko arau subsidiarioen aldaketa batzuk egitea proposatu dute eremuko jabeekideek eta aldaketa hauei ekiteko Larrain S.A enpresak aurkeztutako hitzarmen urbanistikoa onartu da.

Artzabal atzeko eremu horretan etxebizitzak egiteko ez dago inongo oztoporik. Egungo araudiaren arabera hiri urbanizagarria da, eta egoitzazko kalifikazioa du. Sektore horretan 100 etxebizitza libre eraiki daitezke,

gehiengo eraikigarritasuna 18.882 metro karratukoa izanaz.

Orain, metro karratu horiek mantenduz 175 etxebizitza eraiki ahal izatea proposatu zuen Larrain S.A enpresak. Hasiera batean 171 etxebizitza egitekoak ziren, baina eskarei eskaintzak egokituz eta nahiz eta etxeak txikiagoak izango diren, etxebizitza kopurua haunditu nahi izan dute.

Ekainaren 8ko plenoan aldaketa honi baiezkua eman bazitzaion ere, horren trukean udalak zenbait onura eskuratu ditu:

- Artzabal baserria, aurrekaldea eta teilatua konpondu ondoren udalaren eskuetan geldituko da. Konponketak

bederatzi milioi pezeta ingurukoak izango dira eta ondoren udalak baserri jabeen eskuetan utziko du.

- Babes ofizialeko lau etxebizitza, garaje eta guzti, eskuratuko ditu eta 200 metro karratuko merkatal bajua.

Horrez gain 120 milioi pezetako abala jarri beharko du Larrain S.Ak udalean.

Udalak arau subsidiarioen behin behineko aldaketak lehen bait lehen tramitatuko baditu ere, hauen onarpena 1999ko iraila baino lehen gauzatzea ez du garbi ikusten. Guzti hau aurrera ateratzen bada 175 etxebizitza egingo dira Artzabal baserriaren atzean eta hauetatik 52 babes ofizialekoak izango dira.



## TXIMINIA ALTZARIAK

**Osinalde industrialdea**

(Aizpurua autobusen aldamenean)

**Tel.: 943 37 09 66**

**BISITA EZAZU**

**ALTZARI-ERAKUSKETA HANDI BAT  
USURBILEN BERTAN.**


**PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA  
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.  
ESKAINTZA BEREZIAK BETI!!**

## Shakespearean lana umorezko ordu t'erdian

**T**elebistan Goenkale, Hertzainak edo Benta Berri telesailetan ikusiko zenituzten hirurak. Tanttaka taldeko Niko Lizeaga, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza dira. Oraingo honetan herriko frontoian zuzenean ikusi ahal izango dituzu ekainaren 26an. Aitzaga elkarteak antolatuta 1997. urtean estreinatutako "Shakespeare osoa (gutxi gora behera)" antzezlanak aurkeztuko dute.

William Shakespearen idazlanak oso ezagunak dira. Nork ez ditu ezagutzen Romeo eta Julieta, Hamlet, Otelo bezalako lan mirengarriak? Nork ez ote du ikusi aurten horrenbeste oskar irabazi dituen "Shakespearean maitasuna" pelikula?

### TANTTAKA TEATROA



"Shakespeare osoa (gutxi gora behera)"  
Ekainaren 26an gaueko 11etan  
Herriko frontoian. Sarrera dohain


Joseba Apaolaza, Niko Lizeaga eta Asier Hormaza ordea, jendeak Shakespeare ezagutzen ez duelakoan daude antzezlan honetan. Herriko frontoian antzeztuko duten "Shakespeare osoa

(gutxi gora behera)" lanean liburu saltzaile bitxi bihurtuko dira. Inkesta bat egin ondoren ondorio tamalgarri batetara iritsi dira: jende askoren ustez Kenneth Branagh eta Mel Gibsonentzat gidoiak idazten dituen Londreseko jaun lodikote bat da William Shakespeare.

Guzti hau ikusita, egile britaniarraren kalitatea ezagutarazteko asmotan argitaletxe bat sortzea erabaki dute, eta umorezko ordu eta erdian, beren erara noski, William Shakespearen antologia osatzen duten antzezlanak aurkeztuko dizkie usurbildarrei. Zertarako? Ahal izan ezkerolibururen bat saltzea izango da beren helburua.

"Shakespeare osoa (gutxi gora behera)" antzezlanak 1997. urtetik hona ematen ari dira Tanttaka taldeko kideak. **Patxi Barcos** da zuzendaria eta Shakespeare hartuta publikoari barre pixka bat eginaraztea da beren helburua. Adam Long, Daniel Singer eta Jess Winfield britainiarrek idatzitako antzezlanak, **Ritxi Lizartzak** itzulitakoak eta **Patxi Barco** eta **Carlos Zabalak** egokitu dute. Antzezeak berriz aski ezagunak dira euskaldu-non artean. Euskal Telebistako telesailetan behin baino gehiagotan ikusiko zenituzten hirurak.


Josu Aranberri



**TXIRIBOGA**  
TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



**Ekaitz**

**Bideo eta ARGAZKIak**

Usurbil

tel 943 36 14 87

oiartzun

### Udako Euskal Unibertsitatea

Udako Euskal Unibertsitateak antolatu dituen ikastaroetarako izen emateko epea irekita dago ja. Miarrizten uztaillaren 5etik 9ra izango da ikastaroa eta ekainaren 25a baino lehen eman beharko da izena. Iruñeara joan nahi dutenek berriz, (uztaillaren 19tik 30era) ekainaren 30a arte dute izen emateko epea. Udalak ikastaroen matrikula ordaintzeko laguntza emango die horrela eskatzen dutenei. Informazio gehiago udalean izango duzue.



**G**orriak, berdeak, urdinak, horiak... denak atera ziren irabazle pasa den ekainaren 6an ospatu zen Udarregi ikastolaren egunean. Goizean goizetik jolasa nagusitu zen ikastolako plazan. Aurrez aipatutako lau koloretan banatuta adin desberdinetako ikasleek era guztietako jokoetan parte hartzeko aukera izan zuten. Txikienek ikuskizun polita eskaini zuten kiroldegiko jaialdian eta eguerdi partean, berriz, herri bazkariarekin eman zitzaion amaiera aurtengo ikastolaren egunari.

### Tenisa Oiardo kiroldegian

Eskubaloia, futbola, judo... izan ohi dira urtean zehar Oiardo kiroldegian gehien egiten diren kirolak. Udaran, ordea, gehienek jai hartzen dute. Horregatik uztailean tenisean aritzeko aukera paregabea izango da. Bost urtetik aurrerako guztientzat irekia dago teniseko ikastaro hau. Oiardo kiroldegian izango da uztailla osoan zehar. Izena eman edo zerbait gehiago jakin nahi baduzu Oiardo kiroldegira dei dezakezu. Tlf. 372498



**E**guraldi txarra egin bazuen ere frontoian ez zen horrelakorik nabarmendu. Umeek ederki pasa zuten Xirula Mirula taldearen ikuskizunean. "Land Roverra", "Txiki, Txiki, txikia..." txikitandik ikasten diren kantu ezagun horiek abestu eta dantzatuz gozatu zuten herriko txikienek. Globoak, Kakax eta Kokox pailazoak, uztaiak... amaiera polita udaberrirako antolatu den "Plis plas, txalo ta jolas" egitarauarentzat. Eta nola ez, bukatzeko aurpegia txokolatez zikitzeko aukera ere bai, noski!



**H**ainbat urtetan herrian gure artean bizi izan zen **Montxo Goikoetxea** kazetaria hil da. Tudelakoa jaiotzez, Usurbilen bizi izan zen, Bordatxo gainean, urte askotan. Kazetaria zen bera, kritikoa gainera, eta Egin egunkarian hainbat lerro idatzi zituen garai batean. Pasa den ekainaren 4an minbizi baten ondorioz hil zen 63 urterekin herrian lagun asko utzi dituen gizona. Ez lagunak bakarrik, zenbait liburu ere utzi baititu, "Herejias vasco-navarras" azkena.

### ZENDOIA-ENEA

### TABERNA

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaietakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60



Kale Nagusia, 9  
Tlf. 943 37 33 48  
943 37 09 13

USURBIL

### PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

## Ehun metrotan Haritzek jarri zuen 12,25eko marka hautsi ezinik

**U**surbilgo erbia II. laisterketan iazkoa baino zertxobait mantxoagoa izan da. Haritz Urdanpilletak iaz 100 metrotan ezarri zuen 12,25 segunduko marka jeitea inork ez zuen lortu. Arkaitz Rezola izan zen irabazlea 12,62 segunduko denborarekin.

Hamarreko batzuenatik bada ere **Arkaitzek** ez zuen marka haustea lortu. Gertu ibili zen Atxegaldekoa. Lehenengo saiakeran 12,62 segunduko denbora egin zuen, eta bigarrenean denbora hori hobetzen saiatu bazen ere, ez zuen bere helburua lortu.

Hala ere, aurten izandako denborak iazkoarekin alderatzen baditugu, emaitzak hobekak izan direla esan genezake.



Sei partaide agertu ziren Harane futbol zelaiko pista "olinpikora" eta guztiak 14 segundu baino gutxiagotan egin zituzten 100 metroak.

la ezustekoa eman zuena Arkaitzen 15 urteko bere anaia **Jokin** izan zen. Lehen saialdia denek egin ondoren berak

zuen bigarren denbora onena, baina bigarren laisterkaldian **Iñigo Agirrezabala** eta **Juan Mari Hernandezek** 13,72ko marka hori haustea lortu zuten. Bestalde, **Mikel Aranburuk** aurreko urtean egin zuen denbora hobetu zuen, bost ehunenekotan hain zuzen ere.

Azkenean Arkaitzek bakarrik jeitsi zuen 13 segundutako muga hori eta berak jaso zuen **Joxe Luis Elexpek** egindako egurrezko erbi baten irudia.

### Denborak:

- |                       |       |
|-----------------------|-------|
| 1- Arkaitz Rezola     | 12,62 |
| 2- Iñigo Agirrezabala | 13,29 |
| 3- J. Mari Hernandez  | 13,61 |
| 4- Jokin Rezola       | 13,72 |
| 5- Gabi Sarasola      | 13,83 |
| 6- Mikel Aranburu     | 13,98 |



# HEMEN DUZU ZURE PUBLIZITATEA JARTZEKO AUKERA

## Herri arteko txapelketatik kanpora



Lehenengo kanporaketan kanpoan gelditu da Usurbil Herri Arteko Pelota txapelketan. Zaldibia eta Lazkaoko izan dituzte aurrez aurre usurbildarrek, baina ezin izan dute aurrera egin.

Zaldibiaren aurka 2-1 galdu zituzten bi saioak. Hauek izan ziren lehenengo bi saioak eta haseratik maldaz gora jarri zitzaizkien gauzak.

Ondoren Lazkaon jokatu zuten bertakoen aurka eta han ere 2-1 galdu zuten, txapelketatik kanpo geldituz. Azkenik Lazkaotarrak etorri ziren herriko frontoira eta usurbildarrek txapelketako garaipen bakarra lortu zuten kadeteek eta afizionatuek irabazitako partiduei esker. Datorren urterako prestatzen hasi beharko orain.

## Joseba Zubeldia Gipuzkoako hirugarrena

Afizionatu mailan bigarren urtea duen honetan, Joseba Zubeldiak txirindulari maila honetan lortu duen posturik onenatariko bat eskuratu zuen pasa den ekainaren 12an. 23 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketan hirugarren postuan

amaitu zuen Arrasaten jokatu zen proba. Lau txirindulari iritsi ziren alde eginda helmugara, baina usurbildarrak ezin izan zuten afizionatu mailako bere lehen garaipena lortu. Ea ba aurrerantzean garaipenen bat lortzen duen Oakoak.

## MOTZEAN

□ Usurbil Kirol Elkartek denboraldi amaiera bikaina eman dio eskubaloian. 2. nazional mailan bigarren postua eskuratu eta igoera fasea jokatu ondoren, 2.nazional eta 1. errejional mailakoek jokatu duten Kopa txapelketan nagusi izan dira. Joan etorriko finalean Oñatiko Aloña Mendi taldea izan zuten aurrez aurre eta bi partiduetan erraz nagusitu ziren. Zorionak beraz, Usurbil Eskubaloi taldeko mutilei.

□ Jubenil mailako Antiguoko taldeak Espainiako kopako finalerdiko lehen partidua jokatu zuen pasa den ekainaren 13an Real Madridenten aurka. Donostiarrek 4-2 irabazi zuten joaneko partidua, eta usurbildar batek sartu zuen lau gol horietako bat. Nahiz eta lehen urteko jubenila izan, **Andoni Iraola** denboraldi bikaina burutzen ari da Antiguokorekin eta pasa den igandean gol garrantzitsua sartu zuen madrildarren aurka. Finalera sailkatzeko Madrilen emaitza ona lortu beharko dute orain.

□ Pasa den maiatzaren 31an jubenil mailako taldekako gimnasia erritmikoko Espainiako txapelketa izan zen Zaragozan. Lurralde Autonomoka Euskadik bigarren postua eskuratu bazuen ere, Eibarko Ipurua taldean aritzen den **Lur Ibarra** usurbildarrak zilarrezko domina eskuratu zuen zintarekin egindako ariketa batekin.

Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES  
SETABU, S.L.  
TAILERRAK

Ugarte Industrialdea, 7 Pabiloia  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tel.: 943 36 08 48

Urtinea Elkartea

Loreak - Lore landareak  
Lore sortak - Koroak

San Esteban

Tlf.: 943 36 22 55

# Felix Aizpurua sariak banatu dira



**F**elix Aizpurua sariaren lehen ekitaldiko irabazleak zeintzuk izan diren jakitera eman zuten pasa den ekainaren 6an. Aurten literatura hartu da oinarritzat eta prosa eta olerkigintza izan dira landu diren arloak.

Hiru taldetan banatuta landu dituzte ikastolako haurrek hiru arlo hauek: A taldea 8-10 urte bitartekoek osatu dute, B taldea 11-13

urte bitartekoek eta C taldea 14-16 urtekoek. Saritutako lan guzti hauek udalak argitaratzeko asmoa du.

Datorren urtean ere Felix Aizpurua sariketa-  
ren II. ekitaldia antolatzeke asmoa agertu zuten antolatzaileek. Zein izango diren jorratuko diren gaiak ez zuten zehaztu, baina badirudi urtez-urte zerbait desberdina lantzeke asmoa dutela.

## Prosa

### A taldea:

1. saria... **Jokin Iartza Zubiria**. "Filipinetan egun batzuk".
2. saria... **Maitane Arruti Ustoa**. "Eguzkiarekin urtutzen zen gizona".
3. saria... **Garazi Torrealдай Gorriti**. "Txintxoren bizitza"

### B taldea:

1. saria... **Ane Sagardia Egizabal**. "Itxasontzia eta hiltzailea".
2. saria... **Nerea Korta Hernandez**. "Ilunpeko Gaztelua".
3. saria... **Lide Arriaga Barreña**. "Ipotxak eta Sorgina".

### C taldea:

1. saria... **Ibai Arrieta Del Pico**.

"Zikoinak ez daude elizdorreetan"

2. saria... **Aloña Pulido Orbegozo**. "Udako itzala".
3. saria... **Lide Zubiaur Blasco**. "Zer pasa ote zitzaidan?"

Prosan gainerako sarituak: **Itziar Unanue Unanue, Ekhi Arrieta Del Pico, Izaskun Unanue Unanue, Ane Manzidor Agirre, Amaia Aizpurua Atxaga, Praixku Aranburu Illarramendi, Miren Zarautz Bengoetxea eta Jon Iartza Zubiria**.

"Lau urtarook"

2. saria... **Irati Portu Alzaga**. "Eguzkia eta itsasoa".
3. saria... **Itziar Alkorta Matxain**. "Egun sentia".

### C taldea:

1. saria... **Leire Zubiria Ayerbe**. "Ametsen kapitainak deitzen..."
2. saria... **Jon Aizpurua Esnaola**. "Han".
3. saria... **Jone Aliri Lazkano**. "Zuek".

Olerkian gainerako sarituak: **Arantxa Asteasuinzarra Maiz, Gaizka Zumeta Solabarrieta, Maite Roteta Lizaso, Irati Arriaga Elkano, Alex Udabe Pagola eta Unci Sarasola Irueta**.

## Poesia

### A taldea

Ez zen inor aurkeztu

### B taldea:

1. saria... **Irati Arruti Vitoria**.

## Kurtso amaierako azterketa zailena

**Z**umarte musika eskolatik pasa ez diren umeak ez dira asko izango. Musika mintzaira ez bada, abesbatza, eskusoinua ez bada, txistua... etengabeko mugimendua egon ohi da. Hemendik aurrera ordea, iraila bitartean hutsik geldituko da. Datorren ekainaren 19an Oiarde kiroldegian egingo den jaialdiarekin agur esango diote aurtengo ikas-turteari.

Zumarte Musika Eskolan has-teko sei urte izatea nahikoa da. Txiki txikitandik musika hezkuntza irakasten zaie eta horrez gain abesbatzan parte hartzeko aukera izaten dute.

Abesbatza da gaur egun Zumarten arrakasta haundiena duena. 6 urtetik 17 urte bitarteko gazteak abesten dute eta zenbait lekutan izan dira aurten ere. Donostiako Victoria Eugenia antzokian ezagunak dira herriko haurrak. Iaz izan ziren eta Gabon Kantuz txiki ekitaldira aurten ere ez dute huts egin. Horrez gain, Leon hiriko koruarekin elkartrukaketa bertan behera gelditu bazen ere, maiatzan Zestoako balnearioan abestu zuten.

### Musika mintzairatik instrumentura

Txikitandik abesbatzan hasten badira ere, gehienak instrumenturen bat jotzen bukatzen dute. Aukera behintzat zabala da, 12 instrumentu desberdin jotzen ikasteko aukera baitago: tronboia, saxofoia, bibolina, perkusioa, klarineta, eskusoinua, pianoa, trabeskako flauta, tronpeta, txistua, kitarra eta alboka.

Ondoren beste pauso bat ematen da: orkestra.



**Zumartek adin guztietako 115 ikasle inguru izan ditu aurten eta 12 instrumentu ikasi ahal izateko eskaintza**

Instrumentua menderatzen hasten direnean orkestran jo ahal izaten dute Zumarteko ikasleek. Aurten Arrasateko Banda txikiarekin elkartrukaketa egin eta bi kontzertu eman dituzte, Arrasaten bata eta Usurbilen bestea.

Ez da orkestra ordea, instrumentua jotzen dutenek har dezaketen bide bakarra. Talde desberdinak sortzeko aukera hor dago.

Ahaleginak egin dira eta aurrerantzean ere ez da horrelakorik faltako, are gehiago, gaur egun Zumartek adin guztietako 115 ikasle inguru dituela jakinda.

Ikasle hauetako gehienak, denak ez badira, Oiarde kiroldegian izango dira datorren ekainaren 19an. Gaueko 22.30etan hasita ikasturte bukaerako jaialdiaz gozatzeko aukera izango du bertara gerturatzeko den edozeinek. Abesbatzak, eskusoinu taldeak, orkestrak, alboka-trikitixa taldeak eta txistulari taldeak zenbait abesti eskainiko dituzte. Azken azterketa zaila herriko musikoentzat!

**Josu Aranberri**



# Zer diyo?

## Muturrak edo isilik: bi mutur



Inaxio Usarralde

□ Galardin jaioa eta Lazkaon bizi dena

□ Noaua! Kultur Elkarteko dinamizatzailea

"...Haunditzen zeranean ikusiko duzu, isilik egoteak zenbat balio dun!..."  
Xabier Lete

Munduan beste gauza askok bezala, isilik egoteak asko balio dezake... edo ez! Momentuaren arabera, seguru asko. Denok somatu izan dugu noiz edo noiz,- beno nik behintzat... bai!- "bart gauean isilik egon izan banintz, mesedea galanta!". Baina, kontuak kontu, momentuan ez gara askorik konturatzen.

Halere, nago, isilik egote hori ez dela muturtuta egotea eta halabeharrez, isilik egon beharra. Ez horixe! Eta nik, biak probatu ditut!

Egin diezaiogun lekua Mikel eta Aneren kasuari (nahi duenak baten lekuan beste izen bat jar lezake eta bestearenean gauza bera).

(Eguerdiko ordubata alde-alde dira eta Mikelek, oraintxe jaiki berri, Anerekin egin du topo etxeko sukaldean. Ane etxeko zereginetan ari dela luzatu dio lehen hitza Mikelek, hozkailua ireki eta freskagarri lata bati ekiten diola)

-Aizan, banien egunkaria eta ogi bila!

- ... (Hatzamar adierazlea ogi poltsara zuzenduz adierazi dio ez daukala horrenbeste ahalegin egin beharrik).

- Beno, orduan, amonak emandako bainak aterako dizkinat izozkailutik bazkaltzeko...

- ... (Sugainean dagoen kazuela erakutsi dio, menestra prestatua dagoela esan nahiean)

(Mikel mahaia prantatu eta zai-zai geratu da, horrenbestean, egunkariari begiradizoa botatzeko aprobeztatuz)

- ...  
- Goxoa dago!

- ...  
- Zer? Hasserre al hago? Zerbaitetan huts egin al dinat?

- ... (Menestra bazkaltzeko baina muturrak mahai gainean!)

Honeraino irakurritakoaren ondoren, nabari denez, Mikel eta Anerena ez da isilik egotea... muturtuta egotea baizik! Orain handik bi hilabetera, beste isiltasun mota bat sartu zen Mikel eta Aneren etxean. Honek, ezfarriko ebakuntza bat medio, bi aste hitzik esan gabe pasa beharra dauka.

(Goiz honetan, elkarrekin jeiki dira Ane eta Mikel)

- Nik prestatuko dinat gosaria. Hi, lasai jarri eserita. Hau nire kontu!

- ... (Imintzioka adierazi nahi dio tostadak ekartzeko armariotik, irrifarrez)

- Nola ez ba! Mermelada ere nahiko dun!

(Gosaldu ondoren, egunkaria eta ogia erostera atera da Mikel)

- Bekoetxeko Mariarekin egin dinat topo. Eskuminak eman zaizkidan hasteko. Eta gero esan zaidan, bere familiako halako, ni zein den oraindik konturatzen ez naizena!, hura ere ingresatuta dagoela, eta beraiek ere bueltaka dabilzala: eritetxera joan etorrian.

- ... (Anek zerbaiten imintziola egin dio berriz Mikeli)

- Aizan, idatziz esaidan, mesedez!

- ... (Bekoetxeko Mariaren anaia zaharrena ote den idatzi dio Anek)

- Ba, ez zekinat, niri familiako baten kontua esan zaidan bakarrik, eta nik ez zionat gehiago galdetu.

- ... (Mokolo hutsa dela esan nahi dionaren aurpegia jarri dio)

- Beno, bazkaria listo zegon eta goazen mahaiean eseritzera. Gure amonak emandako baina hauek sekulako itxura zeukane, eh!

- ...

- Hi, bazkaldu ondoren Errekazpiko buelta emango dinagu oinez.

- ... (Buruarekin baietz esan diola iruditu zaió Mikeli)

- Eta gero herriko ostatuan eseriko gaitun. Hainbat lekutan jarri dizkiten kanpoko mahaiak eta. Ederki egongo gaitun!

- ... (Keza aurpegia jarri dio Anek. Ez duela jende artean ibili nahi esan nahiko bailion)

- Beno orduan etxera itzuliko gaitun...

- ... (Buruarekin baietz esan dio eta zerbait idatziz adierazi nahi dion keinua egin dio)

- ... ("Aizak, aspertzen ari nauk isilik egon beharraz..." idatzi du)

- ... (Mikel isilik geratu da, zer esan jakin gabe).

Hau honela, X. Leteren hasierako hitzak datozkit burura: *Isilik egoteak zenbat balio dun*. Asko balio du, bai. Baina, nahita egin ez gero. Derrigortuak, zapore desberdina du beti. Eta hasterako, aspertzen gaitu askotan. Hemen plazaratu nahi dugun lehenengo kasuan berriz, badago jolas polita eta arriskutsua aldi berean. Hau da, badakizu, mahai gaineako muturren erruduna zeu izan zarela. Eta buelta eman nahi diozu horri. Eta badakizu, gehiago hitz egitea zeorren kalterako izan litekeela. Zer egin?-"verbo asmar" esan zuen batek-.

Bigarren egoeran berriz, nahi duzun guztia hitz egin arren, badakizu beti gutxiegi izan-gero dela. Isilik egotea derrigortua dagoenari jasangaizta egiten zaiolako egoera bera. Nola asmatu? Hor dago kakoa! Eta nahita ez dut aipatu gaur, aho bero batzuk esaten ari direnak esaten aritu baino, isilik askoz politago emango luketenak! Beste baterako gaia da hau.



## Bota bertsoa

**G**aztelu hamar bat urtez ibili zen San Juan eskean. Aginagatik irten eta Sarikola, handik Koxkollura, Gorostira... Artikula Handira ere iristen ziren. Urten haietan ere, 1900. urtean gutxi gora behera, ilundu baino lehenago irten eta goizaldera arte ibiltzen ziren kantari ahal ziren baserri guztiak igaroaz. Gaztelu bertsolaria hamar urtez ibili ondoren, nazkatu egin zen eta handik aurrera inori ez zion agindu. Aspalditik, Gaztelu garaian baino lehenagotik ere, San Juan eskean abesten ziren koplak hauek ziren:

“Jesus, Maria” esan biar det  
lendabiziko itzian,  
Aita San Juan sartu dedilla  
gurekin geon etxian.


Etorri ezpagiña esango zuben  
batek ez bada bestiak:  
“usariyua galtzen ari da,  
zer dira oraingo gaztiak?”

Usariyo au badakizute  
eztala oraingo berriya,  
gazte jendia dibertitzeko  
Aita San Juanek jarriya.

Bedeinkatuba ta alabatua  
da Sakramentu Santua,  
pekatubaren mantxarrik gabe  
zeña da kontzabituba.

Illundu baño lenago asi,  
erretiratu goizian,  
gure aitonen aitona ere  
ola ibillitzen zian.

## Lehiaketa



**Nola izena du  
argazkiko baserri  
honek?**

**Asmatzaileen artean  
Tragoxkan bi lagu-  
nentzat afaria  
zozketatuko dugu**

Pasa den alean Zubieta aldean gaur egun ikusiko ez duzuen baserri bat jarri genuen. Ez zarete asko izan erantzuna eman diguzuenak, baina guregana iritsi diren erantzunak zuzenak izan dira denak. 68.alean jarri genuen baserriaren izena **GOIKOETXE** zen, Zubieta auzoan zegoen baserria hain zuzen ere. Asmatzaileen artean zozketa egin, eta **Ander Aizpurua Ostolazak** izango du Zumeta jatetxean afaltzeko aukera.

# A genda

## EKAINAK 18 ostirala

- **Euskal Txokoetako begira-leen lanpostua** bete nahi dutenentzat eskaerak eta proiektuak aurkezteko epea gaur amaitzen da.
- Ekainaren 18tik 24ra bitartean Kalezarko jaiak aprobe-txatuz eskulan **erakusketa** antolatu dute Monjen aldameneko eraikinean **Gure Pakea zahar egoitzakoek**.  
Ordutegia: 17.00-20.00

## EKAINAK 19 larunbata

- Zumarte musika eskolak **ikasturte bukaerako jaialdia** eskeiniko du Oiardo kiroldegian gaueko 22.00etan.

## EKAINAK 21 astelehena

- **Joxe Ramon Zubimendi** zubietarrak berak egindako **"Udal agiriak"** liburua aurkeztuko du Alamandegian goizeko 10.30etan.

## EKAINAK 23 asteazkena

- **Andatza Kultur Kirol Elkarteak Midi d'Ossau-Anayet** irteera antolatu du ekainaren 26-27rako. Ekainaren 23a baino lehen eman behar da izena eta egun berean egingo da bilera Andatza K.K.Eren egoitzan.

## EKAINAK 26 larunbata

- Arratsaldeko 16.00etan **Judo erakustaldia** izango da Oiardo Kiroldegian

Santixabel egitarauaren barruan.

- **Tfantaka taldeak "Shakespeare osoa"** amtez-lana taularatuko du herriko pelotalekuan gaueko **22.00etan**. Aitzaga Kultur Elkarteak eta udalak antolatutakoekitaldia.

## EKAINAK 27 igandea

- Santixabel jaien egitarauaren barruan **Tirri-Tarra fanfarrearen ikuskizuna** herriko pelotalekuan. Ekitaldi hau gaueko 22.30etan hasiko da.

## EKAINAK 28 astelehena

- Umeentzako zine emanaldia frontoian. **"Borrowers"** pelikula gaueko 22.30etatik aurrera.

## OHARRAK

X "Aterpe" eskulangintza tailerak erakusketa jarriko du herriko festetan. Urtero bezala Paris Berriko azpikaldean ikasleek ikasturtean zehar egindako lanak ikusi ahal izango dira. **Egur tailak, zaharberritzeak, pintura lanak...** Gure Pakeako jubilatutako egindako lanak ere aurkituko dituzu hemen.

X **Emakume bat behar dugu** goizez haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 943-363491 telefonora.

X **Andatzpe elkartearen bazkide hutsune bat dago.** Baldintzak jakin nahi dituenak deitu 943-366760 telefonora.

## ZUMARTE MUSIKA ESKOLAREN IKASTURTE AMAIERAKO JAIALDIA

- Zumarte txiki abesbatza
- Zumarte abesbatza
- Eskusoinu taldea
- Zumarteko orkestra
- Alboka-trikitixa
- Txistulari taldea

Eguna: Ekainak 19  
Ordua: 22.30etan  
Lekua: Oiardo kiroldegian

## ETUMETA EUSKALTEGIA

**AEKren udarako eskaintza berezia. Gurasoen Euskal Txokoak, euskaraz idazten eta irakurtzen trebatzeko ikastaroa eta EGA trinkoa. Informazio gehiago Etumeta euskaltegian edo 943-372001 telefonon.**

## BAZKIDIE TXARTIELA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

447

**bazkide ditu Noauak!  
Zu ere egin zaitez  
bazkide**

DISEINUA

FOTOKONPOSAKETA

INPRESIOA

EDIZIO DIGITALA

BIDALKETA

**antza**

grafikagintza & komunikazioa

INDUSTRIALDEA, 2 • 20160 LASARTE-ORIA, GIPUZKOA • TEL.: 943 37 15 45 • FAXA: 943 37 34 03  
e-mail: antzagraf@antza.com • www.antza.com



Produktu aukera zabala

# SAIZAR

JATETXEA  
SAGARDOTEGIA



*Sanjuan onak opa dizkizuegu  
kalezartar guztioi!!*

*Saizar baserria, Kalezar auzoa Telf: 943 36 22 28 - 37 29 82*